

Hazi txarrak

Euskaldunon Egunkaria, 1992-09-15: 2.

Garrantzia duten informazioak, seriotasunarekin eman behar dira. Hau da kazetaritzan nabari denetako lege bat.

Zeharkako salaketak ez dira serioak eta bai iraingarriak. Hazi txarra dira demokrazia barruan. Madrileko aldizkari batetan Euskal Herriari buruz bota duten balizko zerbait aipatu nahi dut. "Dirudienez", Eusko Jaurlaritzako Barne Saila garrantzi handia izan dezakeen arazo baten atzetik dabil, ETA-ren diru zikinak garbitzeko erabiltzen dira Euskal Herriko enpresa ezagun batzuk, eta hauen artean EUSKALDUNON EGUNKARIA; bertan dira, besteen artean, honen sortzaile diren EAKo alderdikide batzu. "Dirudienez", beraz, norbaitek eman dio kazetari jakin bati hau esateko parada. Ni, neroni, EGUNKARIAko sortzaile naizenez eta Eusko Alkartasunako partaide, berehala ikusten naiz akusatuen aulkian. Eta ez dut onartzen honelako salaketarik, balizkotan bada ere. Honelako bide zidorretik publikoki esaten diren gauzak izan behar dute iturri bat, eta iturriak, informazio zehatz bat; norbaitek izan behar du erantzule, eta ez prentsa horiaren bitartez gauzak nahasten. Izen jakin batzuk ere aipatzen dira informazio honetan; hauek ere izango dute zerbait esateko eskubidea. Neu, kazetari bezala bide hau dudanez, eskatu nahi ditut erantzunkizunak; kazetariari, argi dezan adierazi dituenen funtsea, eta Eusko Jaurlaritzako Barne Sailari publikoki esan ditzan beste inoren bitartekorik gabe.